

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 14/2017 Foru Dekretua, martxoaren 14koa, arte eszeniko eta musikalen prestakuntza ekintzetarako laguntzen 2017ko deialdi publikoa onesten duena

Euskara, Kultura eta Kirol Sailak proposatu du 2017ko ekitaldian arte eszeniko eta musikale-tan prestakuntza ekintzetarako laguntzen deialdi publikoa egitea.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatuak hala proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bileran gaia aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. 2017ko ekitaldian arte eszeniko eta musikaletan trebatzeko ekintzetarako laguntzen deialdi publikoa onartzea, 20.000 euroko gehieneko zuzkidurarekin.

Bigarrena. Deialdi hau arautuko duten oinarriak onartzea. Oinarri horiek espedienteari erantsita daude.

Hirugarrena. Gastu hori babesten duen aurrekontu partida Arabako Foru Aldundiaren 2017ko ekitaldirako gastuen aurrekontuko 70.1.05.73.02.480.00.01 partida da (xedapen erreferentzia: 105.816).

Laugarrena. Ebazpenak lau hilabeteko epean emango dira, deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Esandako epea igarota, eskabideari buruzko esanbidezko eba-zpenaren konstantziarik ez badago, iritziko da ezezkoa eman zaiola. Horrek ez du eragozten geroago ebazterik.

Bosgarrena. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artiku-luan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio Diputatuen Kontseiluari hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakiok bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, dagokion administra-zioarekiko auzietarako epaitegian, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Seigarrena. Laguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan aurreikusten dituen moduetan.

Zazpigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko martxoaren 14a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZALEZ VICENTE

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatua

IGONE MARTINEZ DE LUNA UNANUE

**Arte eszeniko eta musikalen 2017ko prestakuntza
ekintzetarako deialdi publikoa**

Oinarriak

Lehenengoa. Xedea

Deialdi honen xedea hauxe da: lehiaketa araubidean, arte eszenikoen (dantza, antzerkia, zirkua eta mimika) eta musikalen alorretan norbanakoen garapena eta ezaguera bultzatzeko helburua duten dirulaguntzak ematea, oinarritzko prestakuntzako ikasketa arautuei dagozkien edo eszenaratzea edo muntaia berekin dakarten proiektuak alde batera utzita.

Bigarrena. Onuradunak

Deialdi honetara aurkeztu ahal izango dira 2017ko urtarrilaren 1ean baldintza hauek betetzen dituzten pertsona fisikoak:

– 30 urte baino gutxiago izatea.

– Azkeneko hiru urteetan etengabe Arabako Lurralde Historikoko edo Trebiñuko Konderriko edozein udalerritan erroldatuta egotea.

Ezin daitezke laguntza hauen onuradunak izan Arabako Foru Aldundiak sustatu dituen laguntzen barruan lehenagoko bi deialditan espezialitate edo arlo berdinerako laguntza jaso duten pertsonak.

Hirugarrena. Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak

Laguntza hauek eskuratzeko interesa duten pertsonek ondoko agiri hauek aurkeztu beharko dituzte, idatziz edo irudiz hizkuntza ez sexista erabiliz:

a) Eskabidea, oinarri hauen eranskin moduan argitaratzen den ereduaren arabera.

b) NANaren fotokopia

c) Errolda ziurtagiria.

d) Laguntza eskatzen duen pertsonare curriculum vitae, eskaeraren xede den diziplinako prestakuntza eta espezializazioari buruzko egiaztagiriko egokiak erantsita.

Adierazitako baina dokumentatu gabeko ekintzak ez dira kontuan edukiko.

e) Aurrera eraman beharreko proiektuaren azalpen memoria.

f) Proiektua zuzentzeko edo babesteko ardura duen pertsona eta/edo erakundearen egokitasuna egiaztatzen duten agiriak, eta/edo onarpen ziurtagiria, hala dagokionean, delako proiektuak irauten duen ordu kopurua adieraziz.

g) Proiektua gauzatu nahi duen herrialdeko hizkuntza nahiko ongi (elkarrizketa mailan) ezagutzen duela egiaztatzen duen agiria, atzerrian egiten bada eta hizkuntza ofiziala ez bada Euskal Autonomia Erkidegoan bertako hizkuntza bezala aitorturik daudenetako bat.

Laugarrena. Eskabideak aurkeztea eta epea

Laguntza eskabideak, hirugarren oinarrian eskatzen diren agiriekin batera, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira (Probintzia plaza, 5), lan orduetan, hau da, 8:15etik 14:30era arte, astelehenetik ostiralera, edo urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, eskaerak aurkezteko ezarri dituen moduetan.

Eskaerak aurkezteko 30 egun naturaleko epea egongo da, oinarri hauek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Eskaerak ez badira behar den moduan aurkezten, edo deialdi honetan eskatzen diren agirietakoren bat falta bada, interesdunari eskatuko zaio 10 egunen barruan akats hori zuzendu dezala edo beharrezko agiriak erants ditzala. Adierazi den epean hala egiten ez badu, bere eskaerari uko egiten diola iritziko da, eta beste izapiderik gabe artxibatuko da.

Pertsona batek ezin dezake laguntza bat besterik eskatu, deialdi honetan arautzen direnetatik.

Bosgarrena. Aurrekontu baliabide erabilgarriak, laguntza motak eta sortzapena

Laguntza hauek emateko aurrekontu muga 20.000 eurokoa da. Hona gastu hau babes-ten duen aurrekontu partida: Arabako Foru Aldundiaren 2017ko gastuen aurrekontuko 70.1.05.73.02.480.00.01 "Prestakuntza ekintzak, arte eszeniko eta musikalak".

Deialdi honek laguntza mota hauek hartzen ditu barne, zenbatekoari eta gauzatze tokiari dagokienez:

TOKIA	ZUZKIDURA EUROTAN
Atzerrian gauzatu beharreko proiektuak	5.000
Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo eta Espainiaren barruan gauzatu beharreko proiektuak	3.000

Laguntzaren ordainketa ondoren azaltzen den moduan egingo da, eta hari dagokion atxikipena egingo zaio:

- a) Zenbatekoaren ehuneko 70, laguntza ematen den unetik aurrera.
- b) Gainerako ehuneko 30a, gauzatutako proiektuari buruzko memoria aurkezten denean.

Seigarrena. Prozedura izapidetzea

Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kultura Ekintza Zerbitzuak izango du prozedura izapidetzeko eskumena.

Zazpigarrena. Eskaeren azterketa, balioztatze irizpideak eta ebazpena

Onuradunak aukeratzeko proposamena ondoko partaide hauek osatutako batzorde batek egingo du:

- Presidentea: Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria
- Batzordekideak: Kultura Ekintza Zerbitzuaren burua, Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritzari atxikitako teknikari bat, eta, idazkari moduan jarduten, hitzarekin baina botorik gabe, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Idazkaritza Teknikoaren burua.

Ondorengo irizpide hauen arabera egingo da balioztatpena:

1. Eskatzailearen curriculum vitae, ehuneko 70, ondoren adierazten den moduan banaturik: Ehuneko 30, laguntza eskaeraren xedea den alorreko prestakuntza. Ehuneko 40, laguntza eskaeraren xedea den alorreko esperientzia eta hartan egindako jarduerak.
 2. Egiteko den proiektuaren interesa, ehuneko 30.
- Balioztatze Batzordeak, egokia iritziz gero, arloko espezialisten txostenak edo kanpoko aholkularitza teknikoa eskatu ahal izango ditu, aurkeztutako proiektuak ebaluatzeko.
- Aipatutako batzordeak, aurkeztu diren eskabideak ikusirik, beka hauen esleipena erabat edo zati batean eman gabe uztea proposatu ahal izango du.

Balioztatze Batzordeak proposamen bat aurkeztuko du, beka esleitzeko jasotako eskaerekin, lehenetasun hurrenkeraren arabera zerrendatuta, bateraezintasunagatik, absentsiagatik edo uko egiteagatik ordeztuari begira.

Merezimendu berdinekin, lehenetasuna emango zaie azken hiru ekitaldietan Sail honetatik inolako laguntzarik jaso ez duten pertsonak aurkeztutako eskaerei.

Deialdi honetako beken emakida Diputatuen Kontseiluaren erabaki bidez ebatziko da, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak proposatu ondoren; eta onuradunei haren berri emango zaie urriaren 1eko 39/2015 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan aurreikusten duenarekin bat etorritz.

Ebazpenak administrazio bidea amaitzen du; beraz, uztailearen 13ko 29/1998 Legearen, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa arautzen duenaren, 46.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da, administrazioarekiko auzietarako kasuan kasuko epaitegietan. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Zuzenean aurka egin ezean, nahi izanez gero errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, hura jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Beka eskaerak lau hilabeteko epean ebatziko dira, deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta. Esandako epea igarota, eskabideari buruzko esanbidezko ebazpenaren konstantziarik ez badago, iritziko da ezezkoa eman zaiola. Horrek ez du eragozten geroago ebazterik.

Zortzigarrena. Laguntzaren xedea den proiektua gauzatzeko denbora

Gutxienez 250 orduko iraupena duten proiektuetarako emango dira laguntzak, eta haiek 2017ko ekitaldian zehar gauzatu beharko dira.

Bederatzigarrena. Laguntzen onuradunen eginbeharrak

a) Urriaren 19ko 11/2016 Legeak, dirulaguntzen lege orokorrak, 14. artikuluan izaera orokorrean ezarritako eginbeharrak dituzte onuradunek.

b) Beka hauek eskuratzeko eskabideak aurkezteak berekin dakar oinarri hauetan ezartzen diren arauak espresuki eta baldintzarik gabe onartzen direla.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko gizonen eta emakumeen berdintasunaren 4/2005 Legean eta emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasunerako 3/2007 Lege Organikoan jasotako printzipioak eta betebeharrak betetzea.

d) 2017ko abenduaren 11ra arteko epea izango dute egindako lanari buruzko amaierako memoria aurkezteko. Horren barruan, besteak beste, proiektuaren zuzendaritzaren ardura duen pertsonak edo erakundeak emandako asistentzia ziurtagiria jaso beharko da, proiektuak irauten duen ordu kopurua adierazten duena, baita ere pertsona edo erakunde horrek emandako ebaluazio ziurtagiri bat.

Hamargarrena. Dokumentuak itzultzea

Eskatzaileek aurkeztutako dokumentuak, beren eskabidea izan ezik, hilabeteko epean berreskuratu ahal izango dira, laguntza hauei buruzko ebazpena jakinarazi ondoren, laguntzen onuradunek aurkeztutako materialak izan ezik, espedienteari erantsiko baitzaizkio. Ezarritako epe hori igarotakoan, Euskara, Kultura eta Kirol Sailari aurkeztutako eta berreskuratu gabeko dokumentazioa suntsitu egingo da.

Hamaikagarrena. Bateriaezintasunak

Deialdi hauen xedea diren laguntzak bateraezinak izango dira proiektu bererako beste edozein laguntza jasotzearekin, baita ere interesdunak edozein erakunde, korporazio edo pertsona publiko nahiz pribaturekin kontratu edo estatutu lotura izatea berekin dakarten soldata eta ordainsariak jasotzearekin, laguntza eman baino lehenago Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritzak horren berri izan eta baimen espresua eman gabe.

Hamabigarrena. Laguntzak itzultzea

Esleitutako dirulaguntzak itzuli egin beharko dira urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako lurralde historikoko dirulaguntzenak, ezarritako kasuetan.

Onartutako dirulaguntzaren kontura jasotako kopuruen itzulketa zuzenbide publikoko diru sarreratzat hartuko da eta haren kobrantza abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak, ekonomia eta aurrekontu araubidearenak, bere II. tituluko I. kapituluan aurreikusten duenarekin bat etorritik egingo da.

Hamahirugarrena. Interpretazioa

Oinarri hauek interpretatzerakoan sor litekeen edozein zalantza Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailak ebaztuko du.

Hamalagarrena. Garapena

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak proposatuta, Diputatuen Kontseiluak deialdi honen garapenerako bidezkoztat jotzen diren ebazpenak emango ditu, eta datuak egiazkoak direla eta oinarri hauetan araututakoa betetzen dela egiaztatzeko eta horretara behartzeko bide ematen duten ekintzak burutu ahal izango ditu. Horretarako, onuradunek konpromisoa hartzen dute beraiek egindako jardueren inguruan Euskara, Kultura eta Kirol Sailak eskatzen dizkien datu eta dokumentu guztiak emateko. Era berean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontuen Epaitegiak edo eskumena duten bestelako erakundeek eskatzen dieten informazio guztia ere eman beharko dute.

Hamabosgarrena. Publizitatea

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, eta ahalik eta zabalkunderik handiena emango zaio hedabideetan.

Hamaseigarrena. Erreklamazioak

Deialdi hau zein haren ondorioz sortutako administrazio egintza oro inpugna daiteke, 39/2015 Legeak ezarritako kasuetan eta eran (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena).

Hamazazpigarrena. Azken klausula

Oinarri hauetan xedatuta ez dagoen guztian, honako hauei jarraituko zaie: urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak; abenduaren 18ko 53/1992 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko aurrekontuen ekonomia araubidearena; aurrekontua gauzatzeko indarrean dagoen foru araua; urriaren 1eko 39/2015 Legea, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena; 3/2007 Lege Organikoa, gizonen eta emakumeen berdintasunerakoa; 4/2005 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko emakume eta gizonen berdintasunerakoa, eta aplikatzeko den gainerako araudia.

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	2017 Arte Eszenikoen eta Musikalen prestakuntza ekintzatarako laguntza eskaera Solicitud de ayuda para acciones formativas en Artes Escénicas y Musicales
	<p>Euskara, Kultura eta Kirol Saila Departamento de Euskera, Cultura y Deporte</p>

Eskaera zk. ■ N° Solicitud

Eskaera data ■ Fecha Solicitud

(Administrazioak betetzeko ■ A cumplimentar por la Administración)

ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE ⁽¹⁾

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo

 IKZ CIF NAN DNI AIZ NIE Besteren bat Otro

Identifikazio zk. ■ N° identificativo

Sexua ■ Sexo

 Emakumea Mujer Gizona Hombre

Izena edo sozietatearen izena ■ Nombre o razón social

Lehen abizena ■ Primer apellido

Bigarren abizena ■ Segundo apellido

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)

Zk. ■ Núm.

Letra

Eskra. ■ Escal.

Solairua ■ Piso

Aldea ■ Mano

Herrialdea ■ País

Probintzia ■ Provincia

Udalerría ■ Municipio

Herria ■ Localidad

P. K. ■ C. P.

Telefonoa ■ Teléfono

Mugikorra ■ Móvil

Faxa ■ Fax

Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA ■ DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN POSTAL ⁽²⁾
(Ez da bete behar eskatzailearen datuekin bat egiten badute ■ No rellenar si coincide con los datos de la persona solicitante)

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)

Zk. ■ Núm.

Letra

Eskra. ■ Escal.

Solairua ■ Piso

Aldea ■ Mano

Herrialdea ■ País

Probintzia ■ Provincia

Udalerría ■ Municipio

Herria ■ Localidad

P. K. ■ C. P.

LEGEZKO ORDEZKARIA ■ REPRESENTANTE LEGAL

(Pertsona juridikoentzat nahitaezkoa da ■ Obligatorio para las personas jurídicas)

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo

 NAN DNI AIZ NIE Besteren bat Otro

Identifikazio zk. ■ N° identificativo

Sexua ■ Sexo

 Emakumea Mujer Gizona Hombre

Izena ■ Nombre

Lehen abizena ■ Primer apellido

Bigarren abizena ■ Segundo apellido

Protokolo zk. ■ N° protocolo

Data ■ Fecha

Notarioa ■ Notario

Telefonoa ■ Teléfono

Mugikorra ■ Móvil

Faxa ■ Fax

Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus	2017 Arte Eszenikoen eta Musikalen prestakuntza ekintzatarako laguntza eskaera Solicitud de ayuda para acciones formativas en Artes Escénicas y Musicales
--	--

Euskara, Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Euskera, Cultura y Deporte

ESKATZEN DUEN ARLO ETA LAGUNTZA MOTA (Adierazi X batez) ■ AREA Y MODALIDAD DE AYUDA QUE SOLICITA (indicar con una X)

	Arte Eszenikoen Arloa ■ Area Artes Escénicas	Laguntza mota ■ Modalidad
	Musika-arteen Arloa ■ Area Artes Musicales	Laguntza mota ■ Modalidad

ZEIN IKASGAITARAKO ESKATZEN DUEN LAGUNTZA ■ MATERIA DE ESTUDIO PARA LA QUE SE SOLICITA AYUDA

.....

Programa gauzatuko den lekua ■ Lugar en el que va a desarrollar el programa:

.....

Herraldea ■ País:

.....


BANKUEN DATUAK ■ DATOS BANCARIOS

FINANTZA ENTITATEA / ENTIDAD FINANCIERA

BANCO																		
IBAN													SWIFT					

Finantza entitatearen adostasuna (sinadura eta zigilua)
 Conforme entidad financiera (firma y sello)

Kontu korrontearen titullarrak doakion hirugarrena bera behar du izan.
 La titularidad de la cuenta bancaria debe coincidir con el/la interesado/a.

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p style="text-align: right;">2017</p> <p>Arte Eszenikoen eta Musikalen prestakuntza ekintzatarako laguntza eskaera</p> <p>Solicitud de ayuda para acciones formativas en Artes Escénicas y Musicales</p>
--	--

Euskara, Kultura
eta Kirol Saila

Departamento de Euskera,
Cultura y Deporte

Aurretik aipatu den laguntzaren eskatzaile gisa, zera ADIERAZTEN DUT: ■ Como solicitante de la ayuda a la que he hecho mención anteriormente, DECLARO:

- **Proiektua egiteko laguntzarik jaso ez dela, bai eta inongo bateraezintasunen menpe ez egotearena ere** ■ No disfrutar de ningún tipo de ayuda para la realización del Proyecto, ni de hallarme en situación de incompatibilidad alguna.
- **Ez daukadala zehapenik ez debekurik laguntza publikoak jasotzeko, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako 4/2005 Legeaz baliatuz** ■ No estar sancionada/o con la prohibición de ser persona beneficiaria de ayudas públicas en virtud de la Ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y Hombres.
- **Eskabide honetan eta berari erantsitako agirietan azaldutako datu guztiak egiazkoak direla. Jabeturik nago oinarriak ez betetzeak edo iruzurrezko omisio edo faltsutasunak** ■ Que todos los datos expuestos en la presente solicitud y documentos que acompaño se ajustan a la realidad, siendo consciente del perjuicio que se me puede irrogar por incumplimiento de las Bases, omisión dolosa o falseamiento.

(*Tokia eta data* ■ Lugar y fecha)

Eskatzailearen/Ordezkararen sinadura ■ Firma de la persona solicitante/representante

ERANTSITAKO AGIRIAK ■ : DOCUMENTACIÓN QUE SE ADJUNTA

- NANaren fotokopia** ■ Fotocopia del DNI
- Errolda ziurtagiria** ■ Certificado de empadronamiento
- Curriculum eta laguntza eskatuko den arloan egindako ikasketen egiaztagiria bai eta espezializazio ikasketenak ere** ■ Curriculum Vitae y documentos acreditativos relativos a la formación y especialización en la disciplina objeto de la solicitud
- Egin nahi den proiektuaren azalpen memoria** ■ Memoria explicativa del Proyecto a desarrollar
- Proiektua egiteko aurkezten den pertsona egokia dela egiaztatzen duen agiria, edo proiektua zaindu edo zuzenduko duen erakundea egokia dela egiaztatzen duena, eta hala badagokio, onarpen ziurtagiria. Proiektuaren irupena adieraziko da** ■ Documentación que acredite la idoneidad de la persona y/o Entidad responsable de tutelar o dirigir el Proyecto y/o certificado de admisión, en su caso, con expresión del número de horas de duración del citado proyecto.
- Atzerriko hizkuntza elkarrizketa mailan behar beste dakiela egiaztatzen duen agiria** ■ Documento que acredite el conocimiento suficiente, nivel conversación, del idioma del país donde pretenda realizar el Proyecto.

Orria ■ Hoja 3/4

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p style="text-align: right;">2017</p> <p style="text-align: center;">Arte Eszenikoen eta Musikalen prestakuntza ekintzatarako laguntza eskaera</p> <p style="text-align: center;">Solicitud de ayuda para acciones formativas en Artes Escénicas y Musicales</p>
--	--

Euskara, Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Euskera, Cultura y Deporte

Oharra (1)
Datu Pertsonalak Babesteko dauden arauak betez, jakinarazten dizugu zure datuak Aldundi honen fitxategietan jasoko direla. Fitxategi horiek Datuak Babesteko Euskal Agentziaren Erregistroan inskribatuta daude eta horren eskumeneko eginkizunak gauzatzeko egoki diren segurtasun neurriak dituzte. Datu horiek ez zaizkie beste pertsona batzuei jakinaraziko, legeak baimendutako kasuetan izan ezik. Datuen kontra egiteko, datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko edo ezerezteko eskubideak egikaritu ahal izango dituzu Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren Bulegoan (Probintzia plaza 5, P. K. 01001 Gasteiz, Araba).

Oharra (2)
Nahi baduzu administrazioak bide telematikoz bidal diezazkizun jakinarazpenak, alta eman beharko duzu Jakinarazpen Telematikoen Zerbitzuan eta, administrazioarekin harremanetan jartzeko, posta elektronikoa bakararen helbidea (EBH) lortu. Ondoren, zerbitzu horrek gaituta dituen prozeduretan harpidedun egin ahal izango zara. Jakinarazpenak bide telematikoz jasotzeari utzi nahi izanez gero, nahikoa izango duzu dagokion prozeduran baja ematea.

Oharra (3)
Berdintasunaren arloko araudia betez, honako hau ADIERAZTEN DUT:

LEHENENGOA. - Ez ordezkatzan dudan erakundeak ez erakunde horretako gobernu edo administrazio organoetako kide diren inongo pertsona juridikok edo elkarte ez duela, sexua dela eta, inor baztertzeko, ez zuzenean ez zeharka, onarpen eta funtzionamendu prozesuetan, OLOren 13. artikuluan eta Euskadiko Berdintasun Legearen 24(2) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

BIGARRENA. - Ez ni ez ordezkatzan dudan erakunde edo erakunde horretako gobernu edo administrazio organoetako kide diren inongo pertsona juridikok edo elkarte ez dela zigortua izan, ez arlo penalean ez administratiboan, sexua dela eta, inor baztertzeko, ez eta abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuan eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren xedapen gehigarrietako hamalauagarenean gizonen eta emakumeen berdintasun arloan xedatutakoak urratzeagatik ere. Legegintzako errege dekretuak Gizarte Ordenaren Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratua onartzen du eta lege organikoak emakume eta gizonen arteko benetako berdintasuna. Hona hemen halako batzuk, besteak beste:

1. Ez bete Langileen Estatutuak edo aplikagarri den hitzarmen kolektiboak berdintasun planen arloan ezarritako betebeharrak.
2. Sexua dela eta, ordainsari, lanaldi, prestakuntza, sustapen eta gainerako lan baldintzetan bereizkeria zuzena edo zeharkakoa dakarten enpresa erabakiak.
3. Langileek enpresan egindako erreklaazio edo berdintasun eta bereizkeriarik gabeko printzipioa betetzeko eskatzen duten egintza administratibo edo judicial baten aurrean, haien aurkako jarrera dakarten enpresaburuaren erabakiak.
4. Puzibilitate edo beste zernahi hedatze bidez, baldintzak ezartzea, sexua arrazo, onerako edo barrerako baztertzeko dutenak.
5. Sexu-jazarpena, enpresa zuzendaritzaren eskumenen baitako arloetan gertatzen denean, jazarlea nomahi dela ere.
6. Sexu-jazarpena, enpresa zuzendaritzaren eskumenen baitako arloetan gertatzen denean, jazarlea nomahi dela ere, baldin eta enpresaburuak, jakinararen gainean, ez badu neurrik hartu halakorik ekiditeko.
7. Berdintasun planik ez egitea edo aplikatzea edo, halakorik izan arren, argi eta garbi ez betetzea, baldin eta plan hori egiteak abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren 46.bis.2 paragrafoan xedatutakoari erantzuten badiu. Legegintzako dekretu horrek Gizarte Ordenaren Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratua onartzen du.

Nota (1)
En cumplimiento de la normativa de "Protección de Datos de Carácter Personal", le informamos de que sus datos se incluirán en ficheros de esta Diputación, inscritos en la Agencia Vasca de Protección de Datos y que cuentan con las medidas de seguridad adecuadas para la realización de funciones de su competencia. No serán comunicados a otras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente. Podrá ejercitar los derechos de oposición, acceso, rectificación y cancelación en la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5. C. P. 01001 Vitoria-Gasteiz (Álava).

Nota (2)
Si quiere que la Administración le remita las notificaciones por vía telemática, deberá darse de alta en el Servicio de Notificaciones Telemáticas y obtener una dirección de correo electrónico única (DEU) con la que comunicarse con la Administración, suscribiéndose, posteriormente, a los procedimientos que tengan habilitado este servicio, podrá dejar de recibir las notificaciones de forma telemática al dar de baja la suscripción al procedimiento correspondiente.

Nota (3)
En cumplimiento de la normativa en materia de Igualdad DECLARO:

PRIMERO. - Que ni la organización a la que represento, ni persona jurídica o entidad alguna de las que forman parte de los órganos de gobierno o administración de la entidad a la que represento realizamos actos de discriminación directa y/o indirecta por razón de sexo en los procesos de admisión o en el funcionamiento de conformidad con lo estipulado en el artículo 13 de la LGS y artículo 24(2) de la Ley de Igualdad de Euskadi.

SEGUNDO. - Que ni yo, ni la organización a la que represento, ni persona alguna de las que forman parte de los órganos de gobierno o administración de esta sociedad, hemos sido sancionadas penal y/o administrativamente por discriminación por razón de sexo y/o por infracciones en materia de igualdad entre mujeres y hombres derivadas del Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley sobre Infracciones y Sanciones en el Orden Social y Disposición Adicional Decimocuarta de la Ley Orgánica 3/2007, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres de 22 de marzo (entre otras, a título no limitativo):

1. No cumplir las obligaciones que en materia de planes de igualdad establecen el Estatuto de los Trabajadores o el convenio colectivo que sea de aplicación
2. Decisiones unilaterales de la empresa que impliquen discriminaciones directas o indirectas adversas en materia de retribuciones, jornadas, formación, promoción y demás condiciones de trabajo, por circunstancias de sexo,
3. Decisiones del empresario que supongan un trato desfavorable de los trabajadores como reacción ante una reclamación efectuada en la empresa o ante una acción administrativa o judicial destinada a exigir el cumplimiento del principio de igualdad de trato y no discriminación
4. Establecer condiciones, mediante la publicidad, difusión o por cualquier otro medio, que constituyan discriminaciones favorables o adversas para el acceso al empleo por motivos de sexo,
5. Acoso sexual, cuando se produzca dentro del ámbito a que alcanzan las facultades de dirección empresarial, cualquiera que sea el sujeto activo de la misma
6. Acoso por razón de sexo, cuando se produzcan dentro del ámbito a que alcanzan las facultades de dirección empresarial, cualquiera que sea el sujeto activo del mismo, siempre que, conocido por el empresario, éste no hubiera adoptado las medidas necesarias para impedirlo
7. No elaborar o no aplicar el plan de igualdad, o hacerlo incumpliendo manifiestamente los términos previstos, cuando la obligación de realizar dicho plan responda a lo establecido en el Apartado 2 del 46 bis del Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley sobre Infracciones y Sanciones en el Orden Social.